

IMAB

Gure proiektua, unibertsitatera edo ikasketak egitera joan nahi duten pertsonengan pentsaturik dago. Proiektua, **beraienetzako egokiena den pisu bat aurkitzean** oinarritzen da, beraien **beharrak kontuan izanik**. Horretarako bai, etxebizitzaren nagusiarekin eta bai ikasleekin harremanetan jarriko gara. Horri esker, behar guztiak asetuko ditugu eta ordainketak egiterako garaian, beraienetzako egokiena den metodoa erabiliko dugu.

BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure proiektuak **lana errazten** die unibertsitatera joan nahi duten pertsoneri, pisu bat bilatu nahi dutenean guk pisuaren jabearekin hitz egiten dugu bezeroarekin biltzeko.

Gainera hainbat pisu bilatzen ditugu eta alokairua **ordaintzeko modu ezberdinak** eskaintzen ditugu. Ordainketa mota hauek beste lehiakideetatik bereizten gaitu, diru gutxi gastatu nahi duten ikasleei ere aukera ematen diegulako pisu batean arazorik gabe egoteko.

- Zer behar edo arazo konpontzen ditugu?

Gure proiektua, **unibertsitatera edo ikasketak egitera joan nahi duten pertsonentzat** oinarrituta dago. Ideia nagusia, beraienetzako egokiena den pisu bat aurkitzea da, beraien beharrak kontuan hartuta. Hau da, gure lehenengo egin beharra alokailuan dauden eta ikasleentzat **egokiak diren etxebizitzak aurkitzea** izango litzateke. Ondoren, etxebizitzaren jabearekin harremanetan jartzea izango litzateke, beraien nahiak ere kontutan hartu ahal izateko. Bestalde, alokairua ordaintzeko hainbat modu erabiliko genituzke. Horri esker, bai etxebizitzaren jabeekin eta bai, ikasleekin beharrak asetzen ditugu. Ezaugarri honek, beste lehiakideengandik bereizten gaitu; ordainketa egiterako orduan, diruaz gain, hainbat modu eskeintzen ditugulako.

Alokairuen prezioak

Gure enpresak, **diru gutxi gastatu nahi duten bezeroei**, beste enpresek ematen ez duten aukera ematen die. Alokairua ordaintzeko modu ezberdina dute, **pisuaren jabeari etxeko eginkizunak egiten laguntzen diote** eta horrela ez dute dirurik gastatu behar. Normalean bere etxeko gela bat

alokatzen jartzen duten pertsonak bakarrik daudelako edo dirua behar dutelako egiten dute, beraz, gure **bezeroek konpainia egiten diote**.



Marka

Euskal Herrian zerbitzu mota hau ematen duen enpresa gutxienetakoa da gurea. Gainera **bezeroei lasaitasuna** ematen diegu, lan gehiena guk egiten diegulako eta horrela ez dute ezertaz kezkatu beharrik. Ez ditugu lehiakide asko, baina alokairuak ordaintzeko gure modua ez daukate eta errazagoa da bezeroentzat alokairua ordaintzea etxeko eginkizunak eginez. Beraz, gure enpresa da **erosotasun** gehien transmititzen duena.

Lana erraztea

Proiektu honen helburu nagusietako bat, hiriburuetara ikasketak burutzera doazen ikasleei beraientzako egokia den etxebizitza bat aurkitzea da.